

**UPV/EHUko GARAPENERAKO
LANKIDETZA BULEGOAREN
MEMORIA**

2014/15 ikasturtea

1. AURKEZPENA.

Mundu globalizatu honetan, garapenaren eta lankidetzaren arazoak gero eta konplexuagoak dira. Unibertsitateak garrantzi handiko ardura dauka, gizakien garapena munduko toki batean eta bestean baldintzatzen duten arazo ugariak ikertzeko eta zabaltzeko lekua den neurrian. Gainera, etorkizuneko belaunaldiak prestatzeko eginbehar garrantzitsua ere badauka unibertsitateak, pertsona horiek parte har dezaten gizartearen arazoaren gaineko eztabaidetan, ekitate, jasangarritasun eta giza eskubideen alde.

Ardura hori onarturik, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legearen hitzaurrean (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez eguneratua) lehen aldiz aipatzen da unibertsitatea balioen funtsezko transmisorea dela, eta unibertsitateak aparteko arduraz sustatu behar duela herrialdeen arteko elkarrizketa, bakea eta lankidetzak. Era berean, nazioarteko lankidetzaz eta elkartasunaz diharduen 92. artikuluan legeak dio **unibertsitateek sustatuko dutela unibertsitateko kideen parte hartzea nazioarteko lankidetzako eta elkartasuneko jarduera eta proiektuetan**, eta bultzatuko dituztela bakearen kultura, garapen jasangarria eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen dituzten jarduera eta ekimenak, balio horiek aurrerabide solidarioaren funtsezko elementuak diren aldetik.

Bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen lehen tituluak UPV/EHUren izaera eta helburuez dihardu, eta bertan esaten da unibertsitateak nazioarteko trukea eta lankidetzak indartuko duela, eta beren-beregi aipatzen da garapenerako lankidetzak. Garapenerako unibertsitate lankidetzak aberasgarria da, alde humanotik nahiz akademikotik, bai lankidetzan diharduten pertsonentzat eta bai haien unibertsitateentzat. Premisa hori abiapuntu, UPV/EHUK, 2007ko otsailaren 8ko Gobernu Kontseiluaren bileran, Garapenerako Lankidetzak Arloko Unibertsitateen Jokabide Kodearekin bat egitea onartu zuen, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarreko (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitateen Batzordeak (CEURI) onartua.

Garapenerako Lankidetzak Bulegoa Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzari atxikita dago. UPV/EHUK zerbitzu hau sortu zuen *garapenerako unibertsitate lankidetzak* sustatzeko, hau da, lankidetzaren bidez unibertsitateko kideek beste gizarte batzuen gaitasunak —bai eta geure gizartearenak ere— sendotzearen alde egiten dituzten elkartasun ahalegin guztiak sendotzeko, bereziki unibertsitatearen eta hezkuntzaren arloan. Zehatzago esanda, bulegoak koordinatu, lagundu eta bideratu nahi ditu unibertsitateko komunitatearen sektore desberdinek garapenerako lankidetzan egiten dituzten ahaleginak.

2. HELBURU OROKORRAK

- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntza unibertsitatearen gizarte eginkizunean txertatzea.
- Elkartasun balioetan eta balio unibertsalistetan oinarritutako prestakuntza sustatzea, gure ikasleek gizarte arazoei buruzko eztabaidetan parte har dezaten, ekitatearen, jasangarritasunaren eta giza eskubideen errespetuaren alde.
- Munduko leku batean eta bestean gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoak ezagutzea, ikertzea eta jakintza horren zabalkunde bultzatzea, unibertsitateko kideak arazo horietaz jabetu daitezten.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura giza baliabide espezializatuak jartzea, eta beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzea.
- Elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea unibertsitateko kideen artean, ikasleen artean batik bat, eta haien boluntario lana erraztea esparru espezifikoko batean, programa propioak sortuz edo ikasleak beste erakunde batzuetara bideratuz.

3. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak hainbat **ekintza** burutzen ditu garapenerako unibertsitate lankidetzaren hainbat esparrutan. Garrantzitsuenen artean, honako hauek:

3.1.- Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetzaren bultzatzeko hitzarmenak sustatzea.

Azken urteotan hitzarmenak sinatu ditugu Euskadiko eta kanpoko hainbat erakunde eta entitate sozialekin. Hitzarmenoi esker aukera eman digute unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura sendotzen jarraitzen dugu, zabalkunde programetan parte hartuz eta irakaskuntzan, prestakuntzan eta ikerketan trukeak eta kolaborazioak eginez.

2014/15 ikasturtean honako hitzarmen hauek bideratu ziren UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan:

Beste administrazio publiko batzuekin egindako hitzarmenak:

- Lankidetzaren hitzarmena, Arabako Foru Aldundiaren eta UPV/EHUren Arabako Campusaren artekoa, "Fortalecimiento del sistema de educación intercultural bilingüe en Ecuador" proiektuan laguntza emateko.
- Lankidetzaren hitzarmena, Gasteizko Udalaren eta UPV/EHUren artekoa, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan eta Gasteizko Farmazia Fakultatean 2014/15 ikasturteko lankidetzaren monografikoak kofinantzatzeko.
- Lankidetzaren hitzarmena, EUSKAL FONDOAREN eta UPV/EHUren artekoa, praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko UPV/EHUko 2014/15eko programan kolaboratzeko.
- UPV/EHUren eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, diru laguntza emateko garapenerako lankidetzarako laguntzan lehentasuna duten herrialdeetatik eta gure unibertsitatearekin 2014/15 ikasturtean hitzarmena daukaten unibertsitateetatik datozen ikasleei, ostaturako eta mantentzeko.

Euskal entitate sozialekin egindako hitzarmenak:

Hitzarmenak egin dira Euskadiko hainbat GGKEekin, eta haiei esker sendotu da praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzan egiteko programa:

UPV/EHUko IKASTEGIA	LANKIDETZAKO EUSKAL ERAKUNDEA
Bilboko Irakasleen UE	SERSO San Viator EuskalHerria
Donostiako Irakasleen UE	Etiopia Utopia Fundazioa Tikal Haurralde Fundazioa
Arkitekturara GET	Mugarik Gabeko Arkitektoak Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Euskal Herria
Donostiako Erizaintzako UE	Medicus Mundi Gipuzkoa
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Haurralde Fundazioa Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkarte
Psikologia Fakultatea	Haurralde Fundazioa

Programa horren barruan, **beste herrialde batzuetako entitateekin** ere sinatu dira hitzarmenak.

UPV/EHUko IKASTEGIA	ATZERRIKO LANKIDETZA ERAKUNDEA
Gizarte Langintzako UE	Fundación NTD Ingredientes. Por el bienestar de la tercera edad. (Dominikar Errepublika) Pies por la Tierra (Argentina) Asociación TNT. Tiempos nuevos Teatro (El Salvador) Frater Nicaragua-Masaya (Nikaragua) CODEINFA (Txile)
Bilboko Irakasleen UE	Fundación Mahatma Gandhi (Dominikar Errepublika) AMARMAPA (Brasil)
Farmazia Fakultatea	Eskuadorreko Eliz Unibertsitate Katolikoa, Esmeraldaseko Egoitza (Ekuador)

Practicuma eta GRALa garapenerako lankidetzan egiteko programatik aparte, lankidetzak hitzarmenak egin dira Euskadiko zenbait entitate sozialekin, gure ikasleak boluntario gisa hartzeko: OSALDE; KCD - KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO ONGD; ASOCIACIÓN LOIZAGA; BERAKAH; HAURRALDE FUNDAZIOA; ERREKALDEBERRIKO ESKAUTAK; ATZEGI; ASOCIACION DE TIEMPO LIBRE NUESTRO CLUB; ELIZALDE ESKAUT TALDEA; ASPANOVAS BIZKAIA; CIUDADANOS DEL MUNDO POR LA PAZ Y EL DESARROLLO; ETORKINTZA ELKARGOA; SORTARAZI.

3.2.- Garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetarako dituzte laguntzen deialdia.

Deialdiaren helburua da sustatzea UPV/EHUko kideen parte hartzea garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetan, giza garapen txikiagoa duten herrialdeetako biztanleen bizi kalitatea eta bizi baldintzak hobetzen laguntze aldera; era berean, unibertsitateko kideengan kontzientzia kritikoa sortzea eta elkartasun konpromisoa piztea aldaketa sozialerako ekintzekin. Horrela, UPV/EHUk laguntzak ematen ditu UPV/EHUko kideek bideratutako garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko, zati batean edo osorik. Proiektuok alor hauetakoak izan daitezke: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenerako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateak sendotzea; garapenerako hezkuntza.

2014/15 ikasturte honetan garapenerako unibertsitate lankidetzako (GUL) proiektuetarako diru laguntzen deialdi bat egin da, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordearen 2015eko martxoaren 6ko Erabakiaren bidez. Deialdiak 30.000 euroko zuzkidura izan du, eta proiektu bakoitzerako gehienez ere 15.000 euroko diru laguntza eman da.

Azken urteotan bezala, Garapenerako Lankidetzako Bulegoak tutoretza saio pertsonalizatuak eskaini ditu eskariak nola egin irakasteko. Gure iritziz, aholkularitza hau ezinbestekoa da garapenerako lankidetzako proiektuak egiten esperientziarik ez duten irakasleek eta AZPkoek proposamenak aurkeztu ahal izateko.

Honela esleitu ziren laguntzak:

2015eko martxoaren 6ko deialdia: esleipena

Garapenerako unibertsitate lankidetzako (GUL) proiektuak 2014/15		
Proiektuaren titulua	Arduraduna	Esleitutako laguntza
CREACIÓN, DESARROLLO E IMPLEMENTACIÓN DE UNA RED INTERNACIONAL, interuniversitaria e interinstitucional de Estudios sobre Biomimesis (INTERNATIONAL UNIVERSITY NETWORK ON BIOMIMICRY STUDIES)	Unai Tamayo Orbegozo (Finantza Ekonomia II saila)	14.000€
Fortalecimiento de la cooperación universitaria entre la F. de Ingeniería de la Universidad de El Salvador y la UPV/EHU	Aitor Gómez Arribillaga (Mugarik Gabeko Ingeniaritza)	10.000€
Fortalecimiento de las capacidades de diagnóstico medioambiental del profesorado y alumnado de la Escuela de Ingeniería en gestión ambiental de la Pontificia Universidad Católica del Ecuador sede Esmeraldas (PUCESE) orientados a la mejora de los proyectos de investigación y vinculación con las comunidades de la zona norte de Esmeraldas. FASE III	DANIEL ZUAZAGOITIA REY-BALTAR (Zientzia eta Teknologia Fakultatea-Kimika Analitikoa saila)	6.000 €

3.3. Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzari buruzko jardunaldiak unibertsitateko kideentzat.

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak zerbitzua ematen die unibertsitateko kideei garapenerako lankidetzaren arloan, eta, ildo horretan, bere eginkizun nagusietako bat da zabalkunde eta sentsibilizazio lana egitea unibertsitateko kideen artean (irakasle, AZPko langile eta ikasleen artean) Hegoaldeko hemisferioaren egoeraz, bai, baina baita ere "garatu" deritzen gure gizarte hauetan gertatu beharreko aldaketaz, Ipar-Hego harremanak oinarritu daitezzen begirunean, berdintasunean, ekitatean eta justizian.

2014/2015 ikasturtean Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak parte hartu zuen bost jardunaldiren antolaketan UPV/EHU-n:

I JORNADA IBEROAMERICANA PARA EL DISEÑO DE MEDIDAS EFICACES PARA EL CONTROL DE LA RESISTENCIA A LOS ANTIBIÓTICOS EN AISLAMIENOS CLÍNICOS DE Acinetobacter baumannii. UPV/EHUko Medikuntza eta Odontologia Fakultatea, 2014ko irailaren 25a.

Garapenerako lankidetzaren arloko GRALei buruzko mahai inguruak UPV/EHUko hiru campusetan. Azaroaren 20an Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan (Bizkaiko Campusa); azaroaren 25ean Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoan (Gipuzkoako Campusa); eta abenduaren 2an Elurreta Ikasgelategian (Arabako Campusa), MGI (Mugarik Gabeko Ingeniaritza) unibertsitate elkartearekin lankidetzan.

I. Nazioarteko Jardunaldiak: Euskadi-Ekuador. Diálogos Interculturales. Otsailaren 9an Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan.

GRALak garapenerako lankidetzan egiteko tresnen inguruko zikloa. Martxoaren 4an Zientzia eta Teknologia Fakultatean (Bizkaiko Campusa); martxoaren 13a Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoan (Gipuzkoako Campusa); martxoaren 11n Elurreta Ikasgelategian (Arabako Campusa), MGI unibertsitate elkartearekin lankidetzan.

Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GUL) proiektuak aurkezteko I. jardunaldia. Martxoaren 23an Leioako Biblioteka Nagusiko Batzar Aretoan (Bizkaiko Campusa).

Gainera, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak 2014/15ean unibertsitateko kideei zuzendutako sentsibilizazio ekintza hauetan parte hartu zuen beste entitate sozial batzuekin batera:

EKINTZA	EKITALDI MOTA	KOLABORATZAILEAK
COOPERACIÓN EN EL SUR DE MOZAMBIQUE	ELKARTASUN KANPAINA	FUNDACIÓN MOZAMBIQUE SUR
Y TÚ ¿QUÉ PUEDES HACER? CAMPUS 89	ELKARTASUN KANPAINA	UNICEF
BOLUNTARIOEN EGUNA	ELKARTASUN KANPAINA	GIZALDE
BOLUNTARIOTZA AZOKA UPV/EHUko HIRU CAMPUSETAN	ELKARTASUN KANPAINA	EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA, BOLUNTA eta GIZALDE
BOLUNTARIOTZA TOPAKETA (UNIKIDE PROGRAMAREN BARRUAN)	ELKARTASUN KANPAINA	BOLUNTA
JANARI BILKETA BIZKAIKO CAMPUSEAN	ELKARTASUN KANPAINA	ELIRAGAIEN BANKUA
ELKARTASUN UDA	ELKARTASUN KANPAINA	BOLUNTA
MINUTUKO BIDEOAK. EMAKUMEA ELKARTRUKAN	UDA KO IKASTAROA	KCD
ZINEGILEEN ARTEAN. EMAKUMEEK EGINDAKO ARABIAR-IBEROAMERIKAR ZINEMAREN KARABANA	UDA KO IKASTAROA	KCD
ZINEMA IKUSEZINA EXPRESS JAIALDIAREN III. EDIZIOA	JAIALDIA/LEHIAKETA	KCD
IKASGELA KRITIKOA: "Enpresa transnazionalak eta giza eskubideak"	ERAKUSKETA	PAZ CON DIGNIDAD ELKARTEA. OMAL
SARTU NIRE ESKOLAN	ERAKUSKETA	COOPERA

3.4. Aholku teknikoa irakasle eta ikertzaileei, AZPkoiei eta ikasleen elkartei.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak aholku teknikoa ematen die unibertsitateko kideei garapenerako lankidetzaren inguruan. Laguntza teknikoa gehienbat GUL proiektuen prestaketa, jarraipen eta ebaluaziorako metodologiei buruzkoa da, bai eta kanpoko finantzabideak bilatzeko teknikei buruzkoa ere.

Erkidegoko, estatuko eta nazioarteko deialdiarako proiektuak prestatzeko tutoretza saioez gain, 2014/15 ikasturte honetan Unibertsitateko Irakasleen Prestakuntza Planaren (UIPP) bidez bi prestakuntza ikastaro eman dira UPV/EHUko irakasleentzat. Ikastaro hauen helburua da UPV/EHUko irakasleen prestakuntza hobetzea garapenerako lankidetzaren arloan. Zehazki, curriculumean garapenerako unibertsitate lankidetzaren (GUL) txertatu gura duten irakasleei zuzenduta daude, eta, bereziki Practicum eta GRALak garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko programaren barruan ikasleak tutorizatzen ari diren edo tutorizatzekei interesa daukaten irakasleei.

2014/15 ikasturtean kudeatutako proiektuen laburpen taula

Deialdia	PROIEKTUA	ARDURADUNA	Esleitutako laguntza
GLB, GUL proiektuak 2014	Fortalecimiento de las capacidades de diagnóstico medioambiental del Profesorado y alumnado de la escuela de ingeniería en gestión ambiental de la Pontificia Universidad Católica del Ecuador sede Esmeraldas (PUCESE) orientados a la mejora de los proyectos de investigación y vinculación con las comunidades de la zona norte de Esmeraldas. FASE II	DANIEL ZUAZAGOITIA (Irakasle eta ikertzaileak-Zientzia eta Teknologia Fakultatea-Kimika Analitikoa saila)	15.000 €
GLB, GUL proiektuak 2014	Bakteriologiako modulua ematea Mikrobiologia Klinikoko masterrean Cochabambako Simón Unibertsitate Nagusian (Bolivia)	LUCÍA GALLEGO ANDRÉS Medikuntza Fakultatea/ Inmunologia, Mikrobiologia Parasitologia	2.521,41€
GLB, GUL proiektuak 2014	Colaboración interuniversitaria- sociedad para la puesta en valor de los ecosistemas de las Reservas de la Biosfera de Jaragua-Bahoruco-Enriquillo (Dominicana) y La Selle (Haiti).	Garapen Jasangarriari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra	15.000 €
FOCAD	Cooperación para un nuevo modelo energético: La transición democrática de la deuda ecológica al buen vivir. Tradebu	Iñaki Barcena	174.845,03 €
ALFA	VINCULAENTORNO	Marian Iriarte	1.120.000 €
UPV/EHUren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena	Fortalecimiento del sistema de Educación Bilingüe en Ecuador III	Juanjo Celorio	30.000€
Programa Hispano Brasileño	Brasiliako Unibertsitatea	Gustavo Fernandez	10.000€

3.5. UPV/EHUko ikasleentzako ikastaro monografikoak garapenerako lankidetzaz eta hezkuntzaz.

Garapenaren eta lankidetzaren arazoak gero eta konplexuagoak diren honetan, ukaezina da unibertsitateak erantzukizun garrantzitsua duela gizakien garapena munduan baldintzatzen duten arazo ugariak ezagutzan eta zabalkundean. Gainera, zeregin nagusitzat hezkuntza duen erakundea den aldetik, unibertsitateak hurrengo belaunaldiak prestatu behar ditu gizartearen arazoei buruzko eztabaidetan parte har dezaten ekitatea, jasangarritasuna eta giza eskubideen errespetua bultzatzearen alde. Premisa hauek kontuan harturik, UPV/EHUko zenbait ikastegirekin, Hegoa Institutuarekin eta zenbait euskal GGKEekin batera, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaz Bulegoak 2004az geroztik hamar bat ikastaro monografiko antolatzen ditu urtero garapenaz eta lankidetzaz. Ekimen hau 2004an hasi zenetik 86 ikastaro monografiko eman dira, UPV/EHUko hiru campusetan banaturik.

Ikastaro hauek aukera ematen diete UPV/EHUko ikasleei hainbat gaitan sakontzeko, hala nola: hezkuntza; ingurumena; elikadura segurtasuna; genero ikuspegia; parte hartze demokratikoa; pertsonen segurtasun politikoa; garapenaren alderdi teknologikoak; osasuna, hainbat ikuspegitatik; giza eskubideei lotutako arazoak; hazkunde ekonomiko desiragarriko baldintzak; finantza ezegonkortasuna; eta merkatuen globalizazioa.

Ikasturtea hasi aurretik Monografikoen Batzordea biltzen da UPV/EHUko hiru campusetan eskainiko diren garapenerako lankidetzazari buruzko hamar ikastaro monografikoen programak zehazteko.

Ikastaro hauetako bakoitzak 50 ordu irauten duenez, graduiko ikasketetan hautazko bi kreditu emango dira bakoitzagatik (ikasgelako 20 eskola ordu + 30 ordu hitzaldi eta mintegietara joanez eta lanak eginez). Ikasgelako 20 orduak honela banatuko dira:

- lehen zatia batzordeak zehaztuko du eta komuna izango da monografiko guztietan (sei eskola ordu).
- bigarren zatia espezifiko izango da, monografikoa emango den titulazio(ar)en arloari dagokiona (hamalau eskola ordu), eta ikastaroaren arduradunak zehaztuko du.

Beraz, haien edukiak egokituta egoten dira emango diren titulazioetara (Farmazia Fakultatea, Irakasleen UE, UE Politeknikoa, Ingeniaritzako GET, Gizarte Langintzako UE, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Psikologia Fakultatea eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea).

Parte hartzen duten irakasle gehienak UPV/EHUko irakasleak dira, eta gurekin lankidetzaz hitzarmenak dauzkaten Euskadiko GGKEetako kideak eta unibertsitate elkarteetako kideak. Ikastaro monografiko hauetan parte hartu duten GGKEetako batzuk dira Mugarik Gabeko Ekonomialariak, Haurralde Fundazioa, Bidez Bide, Coopera, RCD, Medicus Mundi-Gipuzkoa eta MGI (Mugarik Gabeko Ingeniaritza). Ikastaro monografikoa egitea ezinbestekoa da Practicum edo Gradu Amaierako Lana garapenerako lankidetzaz egiteko, eta oso gomendagarria edozelako boluntario lana egiteko UPV/EHUk antolatutako lankidetzaz proiektuetan. Garapenerako Lankidetzaz Bulegoan uste dugu garapenerako lankidetzaz proiektuetan parte hartzeko beharrezkoa dela aurretik gutxienezko prestakuntza izatea.

2014/15 ikasturtean guztira 11 ikastaro monografiko eman dira, eta haiek finantzatzeko Gasteizko Udalaren eta UPV/EHUko ikasleen 0,7 % Fondoaren laguntza izan dugu (azken hori da UPV/EHUko ikasleek matrikularen bidez egindako ekarpenez osatutako fondoa). Hamaika ikastaro hauetan 244 ikasle matrikulatu dira (% 77 emakumeak), eta ikasleen balorazioak oso onak izan dira.

UPV/EHUko MONOGRAFIKOAK 2014/2015			IKASLEAK		
BIZKAIKO CAMPUSA			Guz tira	Emakumea	Gizonak
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (Bilbo)	2014/11/12tik 28ra	20	10	10
Cooperación y educación para el desarrollo	Irakasleen Unibertsitate Eskola	2015/04/20tik 30era	18	16	2
Retos actuales del Desarrollo y la Cooperación en la Economía Global	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	2015/02/06tik 2015/03/06ra	35	28	7
GIPUZKOAKO CAMPUSA					
Introducción a la cooperación para el desarrollo	Psikologia Fakultatera	2014/11/10etik 28ra	17	16	1
Cooperación solidaria para el desarrollo	Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	2014/10/13tik 22ra	25	23	2
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Donostiako UE Politeknikoa	2015/02/06tik 2015/03/27ra	23	14	9
Hezkuntza eta lankidetzaren garapenean kurtso monografikoa	Irakasleen UE	2015/02/03tik 2015/03/25era	23	14	9
ARABAKO CAMPUSA					
Desarrollo y cooperación solidaria	Gizarte Langintzako UE	2014/09/29tik 2014/11/17ra	23	20	3
Cooperación solidaria para el desarrollo	Irakasleen UE	2014/10/22tik 2014/12/11ra	14	11	3
Introducción a la cooperación sanitaria y nutricional	Farmazia Fakultatea	2015/02/02tik 12ra	24	22	2
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	UPV/EHUko Elurretako Bibliotekako eraikina. GASTEIZ	2015/02/26tik 2015/04/30era	22	14	8
GUZTIRA			244	188	56

3.6. Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko diru laguntzen deialdia.

Programa hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2003ko maiatzaren 13an. Beraren bidez, ikasleek aukera dute nahitaezko praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko lankidetzaren entitateek garatzeko bidean dauden herrialdeetan dauzkaten proiektuetan, eta esperientzia horretaz euren prestakuntza akademiko-praktikoa osa dezakete.

Unibertsitatearen eginkizuna da munduan dauden desparekotasunez jabetzen diren profesionalak sortzea, gai izango direnak gizartearen aurrerabidean eragina daukaten arazoez eztabaidatzeko. Programa hau 2003/04 ikasturtean jarri zen abian eginkizun hori betetzen laguntzeko. Programa honen bidez, halaber, UPV/EHUk instituzionalizatu egiten du halako praktiken eskaintza, eta bermatzen du praktikok jasagarriak izatea eta hezkuntzan eragina izatea. Hauek dira programa zimentatzen duten printzipioak:

a) Prestakuntzaren osagaiak pisu handia dauka praktika hauetan: ikasleek euren prestakuntza akademiko eta profesionala hobetzen dute, gauza berriak ikasteko eta trebetasun berriak garatzeko era ematen dieten esperientzien bidez.

b) Ikasleei garapenerako lankidetzarako motibazio handia eskatzen die: gureak baino oztopo handiagoak eta baliabide urriagoak eta desparekotasun itzelagoak dauzkaten gizarteekin lankidetzan jarduteko gogoak izan behar du lehentasuna, eta ez praktika interesgarri edo kitzikagarriak egiteko gogoak, eta hau bai maila pertsonalean eta bai profesionalean.

c) UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzaren erakundearen arteko elkarlana bultzatzen du, bai praktikak ondo atera daitezkeen eta bai unibertsitateko kideak sentsibilizatzeko jarduerak eragina izan dezaten.

Programa honek diru laguntzen funts bat dauka ikasleei bidaia gastuak eta aseguruak ordaintzen laguntzeko. Laguntza 750 euro da ikasle bakoitzeko. Diru funts hau UPV/EHUko EUSKALFONDOAREN ekarpenekin eta UPV/EHUko ikasleen 0,7 % Fondoko ekarpenekin (hau da, ikasleek matrikularen bidez egiten dituzten ekarpenekin) osatua dago.

Horrela, sostengua ematen zaie bi motatako jarduerari:

A) GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO PRAKTIKAK garatzeko bidean dauden herrialdeetan. Praktika hauen helburuak dira ikasleek bateratzea prestakuntza akademikoan jasotako elementu teoriko eta praktikoa eta areagotzea beren gaitasuna errealitate soziala ebaluatzeko eta aldaketa sozialerako estrategiak planifikatzeko, aldi berean arazo sozialak prebenitu, gutxitu eta konpontzeko lanean diharduela, bere prestakuntzak ematen dizkion funtzio profesionalen bitartez.

B) GRADU AMAIERAKO PROIEKTUAK garapeneraren edota lankidetzaren alorrean egitea. Proiektu hauen helburua da UPV/EHUko eskola eta fakultateetako ikasleek graduan jasotako ezagutzak erabiltzea GGKEek eta lankidetzaren entitateek planteatutako "arazo teknikoak" konpontzeko, era honetako gradu amaierako lanak eginez: teknologia egokien prototipoak, giza garapenerako teknologiei buruzko azterlanak eta garapenerako lankidetzako edo giza laguntzako programa eta proiektuetan txertatutako proiektuak.

3.7.1. Programaren faseak eta jarduerak.

Faseak	Jarduerak	Helburuak	Egutegia
Ikasleen eta lankidetzaren entitateen arteko lehen kontaktua	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastegi bakoitzean programaren berri zabaltzea. - Lankidetzaren entitateak aurkeztea ikastegietan. 	Programan parte hartu gura duten ikasleak eta lankidetzaren entitateak zehaztea	Apirila
Praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko laguntzen deialdia	<ul style="list-style-type: none"> - Deialdiaren zabalkundea eta ebazpena - Ikastegi bakoitzak hitzarmena egitea lankidetzaren entitate bakoitzarekin. - Programaren Jarraipen Batzordea eratzea ikastegi bakoitzean. 	Diru laguntzak esleitzea, irizpide objektiboen arabera.	Maiatza eta ekaina
Ikasleek kolaboratzea eta prestakuntza hartzea lankidetzaren entitateetan.	<ul style="list-style-type: none"> -- Tutoreak eta begiraleak izendatzea. -- Praktika plana eta "lankidetzaren eta prestakuntza" plana prestatzea entitateekin. - Lankidetzaren eta prestakuntza planean adostutako jarduerak burutzea. (Jarduera horietako batzuk ikastaro monografikoak dira). - Lankidetzaren entitateak ikaslearen ebaluazio txostena egitea. 	Praktikarako eta GRALa egiteko ikasle egokiak hautatzea.	Urritik hasita eta kasu kasuko herrialdera joan arte.
Praktikak eta GRALa egitea, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> -- Ikasleek praktikak egitea garatzeko bidean dauden herrialdeetan. -- "Kideko begiraleak" jarraipena egitea praktikei, eta txostenak bidaltzea. -- Inplikaturako eragileek praktiken ebaluazioa egitea. 	Praktikak eta GRALa egitea eta ondo ateratzen direla bermatzea.	Urtarriletik irailera

3.7.2. Programaren eboluzioa eta emaitzak.

Argi geratu da praktiken eta gradu amaierako lanen programa honek emaitza onak izan dituela parte hartu duten ikasleen sentsibilizazioari eta haien jarrera solidarioak bultzatzeari dagokionez, eta ikasleek mota honetako praktketan erakusten duten gero eta interes handiagoan. Abian jarri zenetik 12. ediziora arte (2014/15 ikasturtea) programa honekin **unibertsitateko hamalau ikastegiko 771 ikasle** mugitu dira. **Ikasleok** Latinoamerika, Afrika eta Asiako **23 herrialdera** bidaiatu dute, praktikak egitera hogeita hamar bat lankidetzaren entitatek kofinantzatutako proiektuetan.

Horrela, 12. edizioan (2014/15) UPV/EHUko **77 ikasle** hartu dute parte programan. **Ikasleok** Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako **hamahiru herrialdera** bidaiatu dute praktikak edo gradu amaierako lanak (GRALak) egitera garapenerako lankidetzako proiektuetan. **1.1. Praktikak eta GRALak garapenerako lankidetzako proiektuetan egiteko programan parte hartu duten ikasleak, sexuaren arabera.**

2014/2015 ikasturtea

	2014-2015	%
Ikasleak	77	% 100
Emakumeak	58	% 75,32
Gizonak	19	% 24,68

Nabarmentzekoa da emakumeen parte hartzea, ikasle guztien % 87 baitira.

1.2. Praktikak eta GRALak garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko programako xede herrialdeak. 2014/2015 ikasturtea

XEDE HERRIALDEAK	GUZTIRA IKASLEAK
Argentina	5
Bolivia	4
Brasil	1
Txile	2
Ekuador	29
El Salvador	2
Etiopia	4
India	1
Mozambique	2
Nikaragua	6
Peru	12
Puerto Rico	1
Dominikar Errepublika	8
GUZTIRA	77

1.3. Ikasleen banaketa jatorrizko ikastegiaren eta campusaren arabera (2014/2015 ikasturtea).

IKASTEZIA	IKASLEAK	LANKIDETZA ENTITATEA	XEDE HERRIALDEA
ARABAKO CAMPUSA			
Irakasleen UE	15	DIPEI (15)	Ekuador(15)
Gizarte Langintza	10	PIES por la Tierra(2) NTD Ingredientes(2) Frater Nicaragua-Masaya(2) CODEINFA(2) Asoc. Tiempos nuevos Teatro(2)	Argentina (2) Dominikar Errepublika (2) Nikaragua(2) Txile(2) El Salvador (2)
Farmazia	1	PUCESE (1)	Ekuador(1)
BIZKAIKO CAMPUSA			
Irakasleen UE	4	San Viator (1) Fundación Mahatma Gandhi (2) AMARMAPA (1)	Peru (1) Dominikar Errepublika (2) Brasil(1)
GIPUZKOAKO CAMPUSA			
Erizaintza	2	Medicus Mundi (2)	Peru (2)
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	11	Haurralde (3) Bidez Bide(1) DIPEI (7)	Ekuador(7) Peru (4)
Psikologia	14	Haurralde (14)	Bolivia (4) Argentina (2) Peru (5) Nikaragua (2) Puerto Rico (1)
Irakasleen UE	16	Haurralde (6) DIPEI (6) Etiopia Utopia Fundazioa Tikal (4)	Dominikar Errepublika (3) Mozambike (1) Nikaragua (2) Ekuador(6) Etiopia (4)
Arkitektura GET	4	Mugarik Gabeko Arkitektoak (3) MGI (1)	India(1) Mozambike (1) Dominikar Errepublika (1) Argentina(1)
GUZTIRA	77		

PRAKTIKEN ETA GRADU AMAIERAKO LANEN PROGRAMAREN emaitza azpimarragarrienak:

- ✚ Ikasleek kontzientzia hartzen dute pobreziaren kausa posiblez eta Iparraren eta Hegoaren arteko desparekotasunez, ikasleek eurek aurkeztutako txostenetan ikusten denez. Ikasleek batez ere baloratzen dute beste kultura batzuk ezagutzeko eta haietatik ikasteko aukera, eta haien testuingurutik hain desberdinak diren testuinguruetan moldatzearen erronka.
- ✚ Behin Euskal Herrira itzulita, ikasle hauetako askok gogoia izaten dute praktikak egin dituzten komunitatearekin lotura izaten jarraitzeko. Horretarako, batzuetan jarraitzen dute GGKEarekin kolaboratzen, eta, beste batzuetan, elkartasun edota lankidetzarako espazio berriak sortzen dituzte.
- ✚ Praktiketako ikasleak bitartekariak dira gure unibertsitatearen eta harrera egiten dieten hezkuntza erakundeen artean, eta, lotura horri esker, ezagutza eta lankidetzaren prozesu zabalagoak jar daitezke abian unibertsitatearen eta herrialdearen artean.

Programa sendotzen duten lankidetzaren formula berriak ikastegiak inplikatzeko direnean...

Aparteko aipamena behar du **Pastazako (Ekuador) Kulturarteko Hezkuntza Elebidunarekiko unibertsitatearteko lankidetzaren programa**. UPV/EHUren programa bat da, Arabako Foru Aldundiak kofinantzatua, eta hainbat ildo lantzen ditu irakaskuntzan, ikerketan eta aholkularitza tekniko-pedagogikoan. Proiektuan UPV/EHUko hiru irakasle eskoletako eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleek hartzen dute parte zuzenean, eta gure ikasle ugari praktikak han egiteko aukera daukate. 2014/15 ikasturte honetan, Ekuadorren interes handiaren eta bertako erakundearen sostenguen ondorioz, Ekuadorreko Hezkuntza Ministerioaren (MINEDUC) eta UPV/EHUren arteko erakundearteko lankidetzaren hitzarmen bat egiteko tramiteei ekin zaie. Hitzarmenaren xedea erakunde biei arteko elkarlana ahalik eta handiena izatea da, biei lanak egoki koordinatzea eta biei baliabideak ahalik eta modurik eraginkorrean erabiltzea proiektu horretan.

Gainera, nabarmendu behar dugu Lankidetzaren Bulegoa sustatzen ari dela harreman zuzenak izatea beste aldeko erakundeekin, hau da, lankidetzaren hitzarmenak egitea xede herrialdean lankidetzaren proiektua kudeatzen duten entitateekin zuzenean. Aukera horren adibide ederra da Gizarte Langintzako UEK egindako lana. Eskola horrek lekuan lekuko entitate sozialekin kudeatzen ditu Practicumeko plaza guztiak zuzenean, eta 2014/15 ikasturte honetan bost hitzarmen sinatu ditu kanpoko entitateekin (ikus 3.1 atala). Jakitun gaude honelako tramitazio batek askoz lan handiagoa eskatzen diela Practicumaren zuzendariei eta irakasle tutoreei, baina, era berean, uste dugu oso aberasgarria izan daitekeela bai ikasleentzat eta bai ikastegiarentzat berarentzat. Egia da lekuan lekuko lankidetzaren entitateekin kontaktua zuzenean egiteko beharrezkoa dela proiektuak hobeto ezagutzea; areago: gomendatu egiten diegu arduradunei xede herrialdeetara joatea bertatik bertara ezagutzeko gure ikasleak txertatuko diren lankidetzaren proiektuak. Ildo horretatik, Practicumaren arduradun batzuk joan dira beren ikasleentzat xede herrialdeetara. Ekimen hau bultzatzeko, gure bulegoak urtero diru laguntza ematen du irakasleak joan daitezkeen beren Practicum programako lankidetzaren proiektuen herrialdeetara. 2014/15 ikasturte honetan Ana Zuazagoitia irakasleak (Gasteizko Irakasleentzako UEko praktiken arduradunak) bidaiatu du programa honen barruan.

Azken balorazioak:

- ✚ Ikastegi eta titulazio gehiagok sartu dute Practicuma garapenerako lankidetzan egiteko aukera beren ikasketa planetan (adibidez: Farmazia Fakultateak eta Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoak). Horri esker, handitu egin da gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzan egiten dituzten ikasleen kopurua.
- ✚ Bertoko eta nazioarteko elkartasun jardueren sorta bat proposatzen da, eta ikasleei kredituak aitortzen zaizkie haietan parte hartzeagatik.
- ✚ Practicumaren arduradunak gero eta prestatuago eta sentsibilizatuago daude, eta proiektu berriak proposatzen dituzte, unibertsitatekideen inplikazio handiagoa eskatzen dutenak, batez ere irakasle eta ikertzaileena.
- ✚ Harreman hurbilagoak ditugu lankidetzaren entitateekin eta hausnarketa egiten dugu elkarrekin; horri esker, hobetu egiten da unibertsitatearen parte hartzea lankidetzan.
- ✚ Gradu amaierako lanek, nahitaezkoak titulazio guztietan, lanerako eremu berriak eskaintzen dituzte.
- ✚ Antzeman ditugu zenbait gabezia, eta konpontzen saiatuko gara. Horietako batzuk dira programaren balorazio bateraturik ez egotea, eta erakunde lankideari konturik ez errenditzea eta esker onik ez ematea.